

TAILERRA 4, 6 eta 8 astelehen, asteazken eta ostirala

BOTEREA, AHIZPATASUNA, PERREOA.

Uda honetan Donostiako Emakumeen Etxean espazio seguru bat sortuko dugu, sexualki esplizituak diren dantzek boteretsuago sentitzeko tresna gisa duten potentziala ezagutzeko. Twerk, Dancehall Queen eta Perreori buruzko historia, kultura eta batez ere mugimenduak ezagutuko ditugu, arrazakeriaren aurkako begirada feminista baten pean.

Praktika horiek, alde batetik, identitate-aniztasuna sustatzen dute iruditerian, eta bestetik, gizartean debalututa dauden kontzeptu batzuen (feminitatea, gorputz-koipea eta sexualitatearen adierazpena) etsipenari buruzko gogoeta egiten dute. Horregatik, dantza horiek indar handia dute gizartea eraldatzeko, arau hegemonikoak eta patriarkalak urratzen baitituzte dantzariak rol eragile bat hartuz, dantza horiei lotutako estigma sozialak hautsiz eta emakumeen gorputza nahiz plazera politikoki berreskuratzeko aldarrikapena eginez.

* Izen ematea honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com

Ordua: 18:00 -20:00

Formatzailea: Inés Lasagabaster Unzueta

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Berdintasun saila

BAKARRIZKETA 21 osteguna

MAGMA MIA! BEATRIZ EGIZABAL

Sinopsis:

Hasar nago, sutan nago, irakiten nago..presio gehiegi eta zulo guztiak itxita mantentzeko hezitu naute. Sumendia lehertzeaz dago Magma mia!!!

Ordua: 19:30 - 20:30

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Berdintasun saila

TAILERRA 11 eta 14, astelehena eta osteguna

BIZIKLETEN MEKANIKA

Tailer honekin zure bizikletaz maitemintzea nahi dugu!! Eta konfiantza har dezazula bizikletaz edonora joateko!

Helburua da emakume bakoitzak gure bizikletaren berri pixka bat gehiago izatea eta konponketa txikiak bakarrik egin ahal izatea. Oinarrizko beharrezkoak eta/edo premia aurreratuei erantzun diegu astelehenean zein ostegunean, komeni zaizun egunean eta orduan, **16:30etik 20:00etara**.

*Ezinbestekoa da alde aurretik jakinaraztea ordua eta eguna adieraziz helbide elektronikoki honi:
bizikletadonostia@hotmail.com

Gainera, baten batek bere bizikletari konponketaren bat egin behar badio, tailerraren lehen egunean detektatzen lagunduko dizugu eta 2. egunean elkarrekin konponduko dugu. Piezak erosi behar izanez gero, emakume bakoitzak materialak aurkeztu behar ditu bigarren saioan.

Ekarri zure bizikleta, ikasteko eta dibertitzeko gogoia, eta arropa informala (agian zikindu egingo gara, ez ekarri festarako arroparik)!! Eta bizikleta "txarra" bada? Zer diozu? Ez dago bizikleta txarrik, bi gurpil dituzten guztiak onak dira.

Orduetegi jarraitua: 16:30 - 20:00

Hizkuntza: Gaztelania

Formatzaileak: Ana Urteaga Espinal e Itziar Alonso Arbiol.

IRTERA **uztailak 17, igandea**

Azken irteera ere aurreikusita dago, **uztailaren 17an, igandea, 10:00etatik 13:30etara**, Kalapie Hiriko Txirindularien Elkartearekin elkarlanean.

*Beharrezkoa da adieraztea, bizikletadonostia@hotmail.com helbidera idatziz. Lehen tasuna izango dute tailerren parte hartzen dutenek.

Antolatzailea: Berdintasun saila

UDAKO PROGRAMA

UZTAILA 2022

**DONOSTIAKO
EMAKUMEEN
ETXEA**

**Okendo 9
943 48 34 70**

